



SAGARDOTEGIAK

Txotx!

da gakoa



Soinu hori entzuten duzunean, “**txotx!**” alegia, joan zaitez zure edalontziarekin **Donostialdeko** edo Euskadiko gainerako zona produzitzaileetako sagardogileak proposatzen dizun kupelera, har itzazu bi hatz airean zipotzetik darion sagardotik eta utzi lekua hurrengoari. Horren ondoren, txuletoi bikain bat dastatuko duzu... zutik edo mahaian. Hau da zeremonia sagardotegietan.

Duela mende asko, edozein euskal baserrik dauzka bere inguruetan sagarrondo zoragarriak. Horien fruituak jaso eta bildu ondoren, hamar egun igarotzean, tolare baten laguntzarekin, zizarra ateratzen da, eta hori hartzituta produzitzen da sagardoa.



Triki-trixaren erritmoarekin

Baliteke zure bisitan sagardotegi batean triki-trixa alai batekin topo egitea, akordeoi eta panderetarekin. Esperientzia horrek merezi du. Sagardoaren mundua ondo ezagutzeko, **Sagardoetxea** (Sagardoaren Museoa) bisita dezakezu **Astigarragan**, euskal sagardoaren hiriburuan. Hemen garatu da “Sagardun” izeneko proiektua, sagarraren kultura bizirik mantentzen duena.



“ Euskadira egingo duzun
bidaian ezin da falta bisita bat
sagardotegira.

Tradizioa bertan zutik jatea da,
zipotzak irekiz eta abestuz

”

“**txotx!**” ahotsaren ohituraren jatorria bezero batek erosi aurretik hainbat sagardo dastatzean dago. Ohitura hori gure eguneretara egokitu da, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako sagardotegiek beren ateak irekitzen dizkiete bertan jan edo afaldu nahi dutenei, ostalaritza-zirkuituaren barruan sartuz.

Ezkio-Itsason, Igartubeiti Baserri Museoa hainbat jarduera ludiko eskaintzen ditu sagarrarekin lotuak, eta sagardoa egitera bideratutako tolare bat nolakoa den erakusten du. Donostia, Tolosa, Legorreta, Aramaio eta Gernika-Lumoko eskualdeek hainbat sagardotegi dituzte.

www.sagardoa.com
www.sagardoetxea.com
www.sagardotegiak.com

**TOP
ESPE-
RIEN-
TZIA**

Bazkaria
sagardotegietan

Menu trinko bat

Kupeleko sagardoa, bakailaoa tortillan edo saltsan, idi txuleta paregabe bat, gazta, intxaurrak eta irasagarra... Hori da edozein euskal sagardotegitan eskainiko dizuten proposamena!

Sagardotegien denboraldia Donostia egunean hasten da, urtarrilean, eta maiatzean amaitzen da, baina ia establezimendu guztiek irekitzen dituzte beren ateak urte osoan zehar. Horietako askotan bat bateko otxoteak sortzen dira, edo topaketa girotzen duten ahots-taldeak. Batzuetan, bertsolarien desafio entretenigarriak sortzen dira, unean bertan inprobisatzen dituzten bertsoak eginez.

www.euskaditurismoa.net

